



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Dokumentu mota / Tipo de documento: **Erdibideko Zuzenketa**

Nori zuzendua / Dirigido a: Eusko Legebiltzarreko Mahaia

Talde parlamentarioak / Grupos parlamentarios: Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak

Data / Fecha: **2022.05.19**

Espediente zenbakia / Número de expediente: **12\11\03\00\00103**

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: **Google-ekin sinatutako hitzarmenak, Euskal Hezkuntzaren Akordioan jasotako oinarriak nola bermatuko dituen azaltzeari buruz / Relativa a explicar cómo el convenio firmado con Google garantizará las bases recogidas en el Acuerdo Vasco por la Educación**

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari El Parlamento Vasco insta al eskatzen dio: Gobierno:


1. Ikastetxeen alfabetatze digital integralean aurrera egitea, irakasleen eta ikasleen gaikuntza indartuz. Horretarako, kalitatezko prestakuntza-prozesu bat erraztuko duten azpiegiturak eta tresnak izango dituzte, teknologiaren arloan ekitatea eta aukera-berdintasuna zainduko dutenak, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitaleko Planaren jarduerak garatuz.

1. Avanzar en la alfabetización digital integral de los centros, fortaleciendo la capacitación del profesorado y del alumnado, contando para ello con infraestructuras y herramientas facilitadoras de un proceso formativo de calidad que atienda a la equidad e igualdad de oportunidades en el ámbito de la tecnología a través del desarrollo de las actuaciones del Plan de Transformación Digital del Sistema Educativo Vasco.





2. Digitalizazio etiko eta arduratsuaren aldeko apustua egitea, Europako Batzordearen Hezkuntza Digitalaren Ekintza Planetik eratorritako printzipioen arabera, pribatutasuna eta arau etikoak errespetatzen dituzten eta ikastetxeek eskatzen dituzten balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzen dituzten konponbide, tresna eta plataforma teknologiko erraz eta seguruak eskuratuz.
2. Apostar por una digitalización ética y responsable de acuerdo con los principios emanados del Plan de Acción de Educación Digital de la Comisión Europea, dotándose de soluciones, herramientas y plataformas tecnológicas fáciles de usar y seguras que respeten la privacidad y las normas éticas y que aporten los servicios de alto valor añadido que los centros educativos demandan.
3. Aurreko puntuan aipatutako azpiegiturak eta tresnak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko informazioaren eta komunikazioaren teknologien kudeaketa-ereduak ezarritako estandarren arabera, 36/2020 Dekretuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko datuen administrazioari, segurtasunari eta pribatutasun-bermeari buruzko jarraibideekin bat etorritik, dagoen legediaren arabera, bai eta hori betetzen dela zaintzea ere.
3. Desarrollar las infraestructuras y herramientas mencionadas en el punto anterior según los estándares fijados por el modelo de gestión de las tecnologías de la información y la comunicación en el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme al Decreto 36/2020 y las directrices sobre administración, seguridad y garantía de privacidad de los datos del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de acuerdo con la legislación existente, así como a la vigilancia de su cumplimiento
4. Tresnen osagarritasun-printzipio eta ikastetxeen autonomiaren printzipioa
4. Respetando el principio de complementariedad de herramientas y de





errespetatuz, hezkuntza digitaleko plataforma integral bat garatzeko proiektu pilotu bat definitu, garatu eta habian jar dezala zenbait ikastetxetan. Plataforma hori software libreko soluzio teknologikoen osatuko dute eta ikastetxeen behar teknologikoak asetzeko eta osatzeko gai izango da. Eskaintzen diren beste hezkuntza-plataformen soluzio teknologiko analogoak eskainiko ditu, ikastetxeek baldintza berdinetan aukeratzeko dutela bermatuz, eta beste plataforma batzuetatik ikasleak inportatzeko aukera ere izango du.


la autonomía de los centros, definir, desarrollar y poner en marcha en determinados centros un proyecto piloto para el desarrollo de una plataforma de educación digital integral. Esta plataforma estará formada por soluciones tecnológicas de software libre y será capaz de satisfacer y complementar las necesidades tecnológicas de los centros. Ofrecerá soluciones tecnológicas análogas a otras plataformas educativas que se oferten, garantizando que los centros elijan en igualdad de condiciones, contemplará también la posibilidad de importar alumnado de otras plataformas.

Hezkuntza-plataforma digitala eraginkorra bermatze aldera:

Para garantizar la plataforma de educación digital:

1. Mozio honetako 3. puntuan ageri bezala, dagozkion giza baliabideak, baliabide informatikoak eta prestakuntza bermatuko dira.
2. Hezkuntza Akordioan jasotzen den Irakas-Sistemaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Erakundearen (ISEI-IVEI) bitartez, Hezkuntza-plataforma digitalaren proba pilotuari ebaluaketa jarraipena

1. Tal y como consta en el 3er punto de la moción se garantizarán los recursos humanos e informáticos, además de la formación necesaria.
2. La prueba piloto de la Plataforma Digital de Educación será objeto de seguimiento a través del Instituto Vasco de Evaluación, Investigación y Prospectiva del Sistema Educativo (ISEI-IVEI), recogido en el Acuerdo





egingo zaio Saileko digitalizazio-
taldearekin koordinatuta.

Educativo en coordinación con el
equipo de digitalización del
departamento.

5. EAEko ikastetxe guztietan hezkuntza
digitala gauzatzeko software askearen
erabilera sustatu dezala, informazio saioak
eta prestakuntza emanaz ikasle, familia eta
irakasleei.

5. Impulse la utilización de software libre
para el desarrollo de la educación digital
en todos los centros educativos de la
CAPV, ofreciendo para ello sesiones
informativas y formación a estudiantes,
familias y docentes.

